

FAQak: OSASUN-ZENTROAREN ETA FARMAZIA-BULEGOAREN ARTEKO MEDIKAMENTU-HORNIDURARAKO AKORDIOARI BURUZ MAIZ EGITEN DIREN GALDERA ETA ERANTZUNEN DOKUMENTUA

Akordioaren komunikazioa egoitza elektronikoan egiteari buruzko galdera-erantzunak

KOMUNIKAZIOA EGOITZA ELEKTRONIKOAN EGITEKO SARBIDEA

Hornidura-komunikazioa honako esteka hauen bitartez egin daiteke:

Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren orrialdea

<http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/comunicacion/comunicacion-del-acuerdo-entre-oficina-de-farmacia-y-centro-sanitario-para-el-suministro-de-medicamentos/>

Osasun Sailaren orrialdea, Farmazian, “Laguntzak, izapideak eta komunikazioak” atalean (sartu Administrazioarako Komunikazioak azpiatalean, orrialdearen bukaera aldera).

<http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/farmacia/inicio/>

IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKORAKO BITARTEKOAK

Komunikazioa egiteko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat eduki behar da:

https://euskadi.eus/y22-izapide2/es/contenidos/informacion/certificados_admitidos/es_cert_ele/certificados_electronicos.html

1. URRATSA: IDENTIFIKATZEA

1.1 Zer da ordezkari izatea?

Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak hirugarren pertsonen izenean jarduteko mekanismoak aurreikusi ditu 12.etik 14.era arteko artikuluetan: lehenenik, herritarrak ordezkatzeko gaikuntzaren figura, zeina pentsatuta baitago, batez ere, Administrazioaren aurrean kudeaketa- eta ordezkapen-jarduerak modu profesionalean eta jarraian egin ahal izateko. Bigarrenik, interesdunek beste pertsona batzuei beren izenean jarduteko ematen dieten ordezkaritza, zeina, nahitaez, Ordezkarien Erregistro Elektronikoan jasota egon behar baita.

Ordezkarien Erregistro Elektronikoa interesdunek beste pertsona batzuei Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren aurrean beren izenean modu elektronikoa jarduteko ematen dizkieten ordezkaritzak kudeatzen dituen aplikazioa da.

<https://euskadi.eus/registro-electronico-de-representantes/y22-izapide2/es/>

1.2 Datu pertsonalen atalean, zein da titularra?

Farmazia-bulegoen kasuan, titularraren datu pertsonalak bat datoz komunikazioa egiten duen farmazia-bulegoaren titularraren edo titularkidearen datu pertsonalekin.

2. URRATSA: DATUAK BETETZEA

2.1 Non aurki ditzaket osasun-zentroari buruzko datuak?

Medikamentuen hornidurarako akordioa egingo den osasun-zentroari buruz eskatzen diren datu guztiak Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak emandako baimenari buruzko ebazpenean agertzen dira.

3. URRATSA: DOKUMENTUAK ERANSTEA

3.1 Zein dokumentu erantsi behar dira urrats honetan?

Hornidura-akordioa beteta, alderdi biek sinatuta eta eskaneatuta erantsi behar da zure ordenagailutik. Eredu hori eskuragarri dago egoitza elektronikoko "Deskribapena" ataleko II. Eranskinean, baita akordioa aldatzeko eta amaitzeko ereduak ere.

4. URRATSA: SINATZEA ETA BIDALTZEA

4.1 Zer gertatzen da ezin badut komunikazioa sinatu datu guztiak sartu ondoren?

Sinatzea eragozten duten arazoak hainbat izan daitezke, eta askotan izaten da identifikazio elektronikorako zein bitarteko erabiltzen den. Edozer kontsulta edo zalantza argitzeko, jarri harremanetan Zuzenean zerbitzuarekin (012 edo 945018000).

Komunikazioan kargatutako datuak gorde egin daitezke aurreko urratsean (3.ean), Komunikazioa gorde fitxan, datuak berriro kargatu behar ez izateko. Egoitza elektronikoa berriro saio bat hasten denean, eskaera kargatuta agertuko da lehenengo urratseko aukeretan.

Farmazia-bulegoaren eta osasun-zentroaren arteko hornidura-akordioari buruzko galde-erantzunak

1.- Farmazia-bulegoak giza erabilerarako zein sendagaiz hornitu dezake osasun-zentroa?

Osasun-zentro bat bere jarduera profesionala egiteko behar dituen medikamentu guztiez hornitu daiteke, betiere kontuan hartuta baimendutako zein motatako zentroa den, nolako eskaintza asistentziala duen eta zein den hilabete baterako duen premien aurreikuspena.

Beste alde batetik, litekeena da farmazia-bulegoak ez hornitzea N01BB multzo terapeutikoko medikamentuez: hortz-anestesiarako anestesiko lokalak. Hori guztia, 2015eko martxoaren 2an, AEMPSeK ebazpen bat argitaratu zuelako, zeinaren bidez ezartzen baita, banaketa-erakundeen bidez eta laborategi farmazeutikoen bidez, medikuntza, odontologia eta podologiako profesionalei zuzenean saldu dakizkiekeen sendagaien zerrenda, beren jarduera profesionalean jarduteko.

2.- Osasun-zentro batek zenbat farmazia-bulegorekin egin dezake akordio bat bere jarduerarako behar dituen medikamentuen hornidurarako?

Osasun-zentro batek bakarrik farmazia-bulego batekin sinatu dezake akordio bat.

Osasun-zentroak farmazia hornitzailez aldatu nahi izanez gero, akordioa amaitzearekin nahikoa izango da (eredua: II. Eranskina). Gero farmazia-bulegoari komunikatu behar dio eta hark, berriz, Administrazioari komunikatu beharko dio egoitza elektronikoaren bidez; horrela amaituta geratuko da hornidurarako duen erantzukizuna.

3.- Osasun-zentroek Euskal Autonomia Erkidegoko edozein farmazia-bulego aukeratu dezakete hornidurarako?

Bai, Osasun-zentroek EAEko edozein farmazia-bulego aukeratu dezakete hornidurarako.

4.- Nola egiaztatzen da osasun-zentroa baimenduta dagoela?

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak emandako eta indarrean dagoen azken baimen-ebazpenaren bidez egiaztatzen da osasun-zentroa baimenduta dagoela.

5.- Zergatik justifikatu behar du osasun-zentroak giza erabilerarako sendagaiez hornitzeko premia, eta zergatik izan behar da hilabete baterako bakarrik?

Medikamentua kontrolatu beharra da justifikazio horren oinarria, baita farmazeutikoak eta profesional medikoen jarduera profesionalekoak ez diren beste kanal batzuetara egon litezkeen medikamentu-desbideraketak mugatzea ere.

6.- Nola ebaluatzen ditu farmazia-bulegoak hornidura-beharraren justifikazioa eta eskatutako medikamentuen kopuruak?

Osasun-zentroak aldeztu aurretik justifikatu behar du hornidura-beharra, hilez hileko beharren aurreikuspenarekin batera. Osasun-zentroaren tipologiak eta baimenduta duen eskaintza asistentzialak justifikatu behar dute medikamentuaren beharrizana.

7.- Nola komunikatzen zaio Administrazioari farmazia-bulegoaren eta osasun-zentroaren arteko akordioa?

Komunikazioa egoitza elektronikoen bidez egiten da, eta hara sartzeko identifikazio elektronikorako bitartekoren bat eduki behar da.

8.- Zer dokumentazio gorde behar du farmazia-bulegoak eta zenbat denboratan gorde behar du dokumentazio hori, hornidura egin eta osasun-zentroari medikamentuak entregatu dizkiola egiaztatzeko?

Farmazia-bulegoak **gutxienez bi urtetan** gorde beharko du honako dokumentazio hau: Eskaera-agindua, medikamentuak entregatu izanaren egiaztagirak, hornitzen dituen osasun-zentroyen indarreko baimen-ebazpenak, hornidura-akordioa (indarrean dagoen bitartean gorde behar da) edo, hala badagokio, akordioaren baja, osasun-zentroaren hornidura-beharrizanaren justifikazioak eta medikamentuaren arabera egoki iritzitako beste edozein agiri.

9.- Zer komunikatu behar dio nahitaez farmazia-bulegoak osasun-zentroari?

Farmazia-bulegoak arduratuko dira osasun-zentroyei medikamentuak kontserbatzeko baldintzak komunikatzeaz, eta baita merkatutik kendutako unitateak zeintzuk diren komunikatzeaz ere, berak hornitutako medikamentuen loteak badira; medikamentu horiek erregistratuta egon beharko dute.

Estetikan erabiltzeko A motako toxina botulinikoa printzipio aktibotzat duten sendagaien kasuan, osasun-zentroa lehen aldiz hornitzen denean, farmazia-bulegoak AEMPSren 2/2010 zirkularraren kopia eta 2007/11 informazio-oharraren kopia eman beharko dizkio.

BERTSIOA: 2018ko apirilaren 1a

Azalpena

2017ko azaroaren 20an, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) *“Farmazia-bulegoentzako jarraibideak, profesional sanitarioei zuzenean giza erabilera duten sendagaiak saltzeko”* dokumentua argitaratu zuen, zeinetan profesional sanitarioei baimendutako osasun-zentroetan beren jarduera gauzatzeko behar dituzten giza erabilerarako sendagaien hornidura egiteko farmazia-bulegoek bete behar dituzten baldintzak zehazten baitira.

Euskal Autonomia Erkidegoan jarraibide horien aplikazioa errazteko, gida bat egin da, eta bertan ezartzen da **osasun-zentroaren eta farmazia-bulegoaren arteko akordio bat egin beharra giza erabilera duten sendagaien hornidura hasteko**. Akordio hori bi alderdiek sinatu beharko dute eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari komunikatuko zaio, modu elektronikoa, **orrialde honetako izapidetzea atalean** zehaztutako prozeduraren bidez.

Komunikazioa izapidetzen hasi aurretik, gomendatzen da honako dokumentu hauek ordenagailuan deskargatzea: gorago aipatutako gida, maiz egiten diren galdera eta erantzunen dokumentua (FAQ-ak) eta “akordio-eredua” dakarren II. eranskina. Akordio-eredu hori bete, inprimatu, sinatu eta eskaneatu egin behar da, izapidetzearen 3. urratsean erantsi ahal izateko.

Aplikatu beharreko araudia

Aldatu hurrenkera: jarraibideak bukaeran jarri. Ez da arau bat.

Ipini: 782/2013 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria... bakarrik 782/2013 Errege Dekretua ipini behar.

Tramitazioa

- a) Gogoratu II. Eranskinean eredu gisa eskaintzen den akordioa beteta, sinatuta, eskaneatuta eta ordenagailuan gordeta eduki beharko duzula, komunikazioa bidaltzen hasi aurretik.
- b) Sar zaitez izapidetze elektronikorako aplikaziora “Komunikazioa” botoia sakatuta. Ziurtatu badaukazula identifikazio elektronikorako onartutako bitartekoren bat.
- c) Komunikazioaren barruan, lau urrats agertuko dira (kontsultatu faq-ak, zalantzarik izanez gero):
 1. Identifikatu
 2. Bete datuak
 3. Erantsi hornidura-akordioa, beteta eta osasun-zentroak eta farmazia-bulegoak sinatuta.
 4. Sinatu eta bidali.
- d) Bidali ondoren, deskargatu daitekeen hartu-agiria agertuko da beste pantaila batean.

Ez da zertan formularioa saio bakar batean bete, sinatu eta bidali; Administrazioaren sistema informatikoa gorde daiteke, eta hurrengo saioetan jarraitu.